

Txartel digitalaren bidez kontsultak egin ahal izango dituzte anoetarrek

Zergak ordaintzeaz gain, kiroldegian eta eta liburutegian ere erabilgarria izango da KZguneko ordenagailuek beharrezkoa den irakurlea badute, baina etxetik erabiltzeko erosi egin beharko da

Marta San Sebastián. Anoeta.

Anoetako Udalak Internet bitartez administrazioaren zerbi-tzuak jasotzea ahalbidetzen duen Izenpe txartel elektronikoa aurkeztu berri du. Agiri honekin, herritarrek modu erosoagoan Udala eta beste hainbat erakunderekin tramitazioak eta kontsultak egiteko aukera izango dute. "Anoetarrontzat tresna berria da eta zerbitzu telematikoen munduan beste urrats bat. Kontsultak egiteko udaletxera etorri beharra ekiditen du txartel honek eta etxetik edota lantegitik harremanetan egoteko aukera ematen du", azaldu zuen Fidel Azpirozek, Anoetako alkateak.

Euskarri honen bitartez erabiltzaileari zerbitzu telematikoetara sarrera ematen zaio. "Doako zerbitzua da eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako akordioa herri handi zein txikientzat onuragarria da, guztiek prestazio berak izango dituztelako", jakinarazi zuen Txomin Alkorta, KZgunea proiektuko zuzendariak. Erabilera prozedura "erraza" dela jakinarazi dute Anoetako KZguneko arduradunek. Txartela irakurgailu optiko batean sar-tzea nahikoa izango da eta honek aurrez era digitalean grabatutako datuak identifikatuko ditu. Anoetako KZguneko ordenagailuek irakurlea izango dute, baina etxean halakorik ez izanez gero, erosi egin beharko da.

Bide honetan, erabiltzaileak hainbat eragiketa egiteko aukera izango du: Ogasun aitortpena aurkeztu, erakundeetan diru-laguntzak eskatu zein Udaleko tasak eta zergak ordaindu, ordainagiriak kontsultatu edota errolda agiriak eskatu. "Anoetako kiroldegian sartzeko balioko du eta liburutegian liburuak maileguan hartzeko ere bai. Helburua, etorkizunean herritarrek txartel bakar batekin ibiltzea da", azaldu zuen alkateak.

Izenpe txartelaren erabileraz jabetzeko hainbat ikastaro antolatu ditu Anoetako KZgunek. Aurrez txartela eskuratzea gomendatu dute eta hori udaletxean, liburutegian edota kiroldegian egin daiteke. Ikastaroak ordubetekoak eta ondorengo egunetan izango dira: martxoaren 29an, apirilaren 12an eta 26an, eta maiatzaren 10ean. Ikastaroan parte hartzen dutenei irakurle optiko bat oparituko diete.